

Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1996ko maiatzaren 31a

Nafarroa-Highlands, artea truke

■ Nafarroa-Highlands trukearen barruan, Eskoziako lurralde garaietan ikusgai da lau artista nafarren erakusketa. Jokin Manzanos, Teresa Izu, Alfonso Askunzeeta Santiago Garciak eraman dituzte hara beren obrak, Tony Gradyk aukeratuta. Berak bultzatu du Nafarroa-Highlands trukea Nafarroan, Eskozian ez bezala, hemen ez baitu proiektu honek inolako babes ofizialik izan. Lehenago, Eskoziako lau artistak erakutsi zuten euren lana Nafarroan, baita Bilbon ere. Horren ondoren, baliteke datorren urtean Iruñeko Udalaren laguntza izatea abian den ekimen honek. ■



Mapa mutuak

PELLO LIZARRALDE



Zezenketak eta pistolak erotismoarekin lotu izan dituzte Freuden lagunek. Zilegi da *kakalarría* hitza izen misteriotso batez ordezkatu nahi izatea. Jakina, objektu edo gai erotikorik bilatzeko orduan ezin da mugarik ezarri. Nik, konparaziora, gitarrak maite ditut ikaragarri; hori bai, pixka bat pentsatuz gero, gitarra ere arma bihur daiteke. «*This machine kills fascists*», idatzi zuen Woody Guthriek bere gitarraren zur noblean. Hendrix entzuleak metrailatzea gustatzen zitzaion.

Pistolak duena zera da, ez dizula du-da egiten uzten, errauts bilakatu nahi zaituela begiratu orduko. «Ateraz gero ez da komeni atzera egitea», entzun nien berriki telebisiolan mintzo ziren er-tzain eta polizia nazional batzuei.

Izua eta nazka. Horrelako hitzak etortzen dira pistoleroez hitzegiten du-ten gehienek, baina inor ez da akordatzeko biktima akabatzen bi arra-zoi dituzten pistoleroen tristurarekin; eta hankarteko arma behin eta berriz aipatzen dutenak horietakoak ditugu.

Kalibrea

John Wayne errebolberraren eskulekuan egiten zituen markak, sexu pistoleroek koloreko dibujoz betetako gal-tzontziloan. *Diez minutos*-eko galai tristen moduan, pistolero hauek ere *konkista* hitza erabiltzen dute amo dio kontuan, eta aski dute gimnasia mota honi buruzko edozein estatistika irakur-tzea irainduak sentitzeko. Gizon itxu-rako guztien konplizitatea dutelakoan, eta hankarteko oihalarri tira egiten di-oten bitartean, ahots tonua goratzeko ordua iritsi dela deliberatzen dute. Ahalgarearen pisuak lurperatuko duela sentitzen duenak edozein aitzakia on du kontrako norabidean lasterka has-teko.

Kontrako norabidean ere badira, or-dea, oztupoak. Progresismoak gizon homosexualaren aldeko estereotipoa sortu zuen besteak beste: «emakumeekin komunikatzeko orduan ez dago gi-zonezko homosexuala bezalakorik, sentiberatasun berezikoak dira, alaiak, keinu xuabeakoak, mozorrotzea gusta-tzen zaie, tangoak eta boleroak kanta-

tzea oso gogoko dute. Artista arima iz-kutua gehienengan. Hori bai, sufritzeko tenorean ere berak bezalakoak». Gay-alai.

Beste batzuek baino zorte gehixeago izanen dugula pentsatzeak salbatuko gaitu, izan direla eta aurrerantzean ere izango direla inguratu, begiratu eta zer edo zer galdetuko digutenak, xeheta-sunari erreparatzen diotenak. Gero irri-barre egiten badigute gainera, hainbat hobe.

Mehatxua hor izanen da beti. Hala ere bada kontsolatzeko arrazoirik. Haz-kura kendu ezinean dabilzanak urte gutxi barru erretiratu ohi dira. Batzuk elizara joaten dira serio-serio, eta bes-teek bakarriketa amaiezina jotzen dute hondarrean.

Hor izanen dira beti gitarrak. Gita-rrak, eskua jarri orduko, doinua ekar-tzen du, hiru akordeko melodiaren gezi pozoindua. Baditu abantailak. Binilo ba-la ezin da heriotzeko instantean ere ahantzi, baina ez du hiltzen. Ez beti, behintzat. X

GURE AUKERAK

KONTZERTUAK

Iruñea: Halloween taldeak kontzertua eskainiko du gaur, hilak 31. Anaitasuna kiroldegian 22.00etatik aurrera. Haren aurretik taularatuko dira Bruce Dickinson eta Skin. 2.500 pezeta ordaindu beharko dira sarreraren truke.

Iruñea: Pablo Sarasate orkestrak zikloko IX. kontzertua eskainiko du gaur, hilak 31, 20.00etatik aurrera Gaiarre antzokian. Horretan Mendelssohn eta Beethovenen obrak joko dituzte musikari iruindarrek, eta Luis Agirre ariko da zuzendari lanetan.

Erratzu: Koma, Supermirafioris, Kargol's, Lau Behi eta Rigor Mortis taldeek kontzertua eskainiko dute 21.00etatik aurrera. Sarrera mila pezetan izanen da salgai.

Iruñea: Bon Jovik kontzertua eskainiko du heldu den asteazkenean, hilak 5. Sadar futbol zelaietan.

ANTZERKIA

Etzauri: Los Galindos antzerki taldeak *Recuerdo de Constantinopla* obra taularatuko du bihar, hilak 1, herriko pilotalekuan 19.00etatik aurrera.

Ororbia: Xirriquiteula Teatre antzerki taldeak *Historia de...* lana antzeztuko du etzi herriko pilotalekuan, 18.30etatik aitzina.

DANTZA

Zizur Nagusia: Maite Leonen Psico-Balletaren *Giros escénios* muntaia gozatu ahal izanen da gaur eta bihar, Kultur Etxean 20.00etatik aurrera.

ERAKUSKETAK

Iruñea: Xabier Santxotenaren eskulturak ekainaren 23ra arte izanen dira ikusgai Nafarroako Museoaan.

Tafalla: Jose Maria Arceren margoak Velaz erakustaretoan (Iruñea etorbidea, 15) ikusgai izanen dira ekainaren 15era arte.

IBILALDIAK

Altsasu: Altsasuko Mendigoizaleak antolatutako, Irubelaskoara ateraldia izanen da igandean, ekainaren 2an.

AZOKAK

Iruñea: Errusiar haurren aldeko azoka izanen da gaur Mikael zinemetan (Gurutze plazan) Mugarik Gabeko Elkartasun Nafarra elkarteak antolatutako.

LEHIAKETAK

Zizur Nagusia: Herriko festak iragarriko dituen kartela aukeratzeko lehiaketara deitu du Kultur Etxeak. Kartelek 70x50 zentimetrokoak izan beharko dute, eta herriko Kultur Etxean bertan aurkeztu beharko dira, ekainaren 25a baino lehen.

nafarkronika

Fermin Erbiti

Bueltaka dabil mundu hau

Azken egunetako albistei erreparatzea aski da gurea bueltaka dabilen mundua dela ikusteko. Bueltaka behin eta berrito, erreferentzi puntu batzuen inguruan, zurrumbilo horretatik ezin askatuz.

Orain dela hamasei urte nafarroan Ansuategi izeneko bat jarri ziguten gobernadore. Gizon hark elgoibartarra izanagatik ez omen zuen oso gustuko txikitan entzundako mintzaira, Korrika ere debekatu egin zuelako. Kontua da gobernadore hura berrito datorkigula, izena aldatuta (orain gobernu ordezkaria baita) baina, tamalez, ez dut uste izana ezberdina duenik.

Garai hartan militarrek azken desfilea egin zuten Iruñeko karraketan. Ekitaldi hori betikotz desagertu zela uste genuen gehienok, baina gurea iritzi okerra zen, zeren eta aurreko igandean, berriz ere, militarrek intsumisioaren hiria hartu baitzuten.

80ko hamarkadaren hasierako hilketak ere gogoratu ditugu Galindo kartzelaratu ikus-

tean. Bertzalde, garai hartan bezalaxe, gaur egun ere ohiko albiste dira bai atentatuak eta baita *sabotajeak* ere. Horretan aldaketa nabarmena gertatu da, gero eta gutiago baitira dirutan ezezik bertzelako ondorioetan ere hain garesti ordaintzen ari garen indarkeria hori ametitzen dutenak.

Gurea hain tragikoa ez balitz aspergarria litzateke. Ez aurrera eta atzera baizik bueltaka dabilen mundu tiki honetan badira hamasei urteren buruan mahai gainean dirauten bertze gai batzuk ere, esate baterako, Nafarroa eta bertze hiru lurraldeen arteko harremanak.

Eta bada, zorionez, urtero errepikatzen den albiste alaiagorik ere, tonbolarena esate baterako. Bai, Caritasekoak lanean hasi dira Iruñeko Sarasate pasealekuan eta horrek Sanferminetarako oso guti falta dela erran nahi du. Badakizue, bueltaka dabilen munduan bizi gara, bueltaka eta bueltaka, erreferentzi puntu batzuen inguruan. Horieta itzultzeko kondentuta. Onerako gutxitan, txarrerako gehienetan.



asteko pertsonaiak



Josu Iabar
Mendizale, dantzari eta euskaltzalea

■ Josu Iabar Perez, 32 urteko iruindarra, Ossauko gaina (Biarno) jaisten ari zela hil zen joan den igandean. Jaitsieraren zatirik zailena arazorik gabe egin ondoren, konplikazio handiegirik gabeko bidexka batean behera zihoala elur-jausi batek eraman zuen Iabar, eta salbamendu taldeek ezin izan zuten deus egin. Sanduzelai auzoko semea, mendizalea ezezik, Iruña dantza taldeko kidea eta IKAKo Arturo Kanpion euskaltegiko ikaslea izandakoa zen. Haren lagunek diotenez, ezagunegia ez bazen ere, gizon garrantzitsua zen, «kemenez lan eginez euren ingurua aldatzen duten horietakoa baitzen». Euskal Herriko mendiek, dantzak eta euskarak, beraz, gizon garrantzitsua galdu dute.



Helena Taberna
Zinemagilea

■ Helena Taberna zinemagilea nafarra aurten Etxarrin egingo den Nafarroa Oinez-en bideoa grabatzen aritu da joan den asteburu honetan: ostiralean Sakanan, eta larunbatean, berriz, Nafarroako Unibertsitate Publikoan. «Euskara beti lotu da baserriarekin, landa inguruekin, eta ez EGUNKARIArekin, edo unibertsitatean dauden ikastola-umeekin, euren eskura duten literatura horrekin. Mezu hori eman nahi izan dut, azken urteotan horrenbeste aurrerapen ikusi dituen Nafarroan hasiera hori eten ez dadin», azaldu zuen Tabernak. Nafarroa Oinez-en aurtengo ekitaldiko bideoaz gain, ekitaldi guztien historia bilduko duen dokumentala ere prestatzen ari da altsasuarrak.

ahaztu gabe!



ARROSADIAKO XX. JAIK

Iruñea: 1976. urtean Arrosadiako hainbat auzokidek auzoko jaiek berreskuratu zituzten, 1975. urtean jaiek azken unean suspenditu eta geró. Franco bizirik zegoen artean, eta, jakina, baziren arazo franko. Arazoak, dena dela, ez ziren *Generalísimo*-aren heriotzarekin batera amaitu, eta azken bi hamarkadotan zehar Iruñeko auzorik aldapatsueneko jaiek beste hamaika traba gainditu behar izan dituzte: Udalak diru laguntza emateari utzi zion, tabernei isunak jarri zizkieten, data aldatu behar izan zuten (urriaren 12tik ekaineko lehendabiziko astera)... Hala ere, jaiek aurrera egin dute, eta aurten 20 urte beteko dituzte. Urtebetetzea ospatzeko, orain arteko jai egitaraurik aberatsena osatu nahi izan du jai batzordeak: gaiteroak, Txantreroak, erraldioak, kalejira, kirol ekintzak, musika jaialdiak, jotak, artisautza, gaztelu puzgarriak eta abar. Hori guztia eta giro aparta gozatu ahal izanen duzu gaurtik igandera arte Arrosadiako jaie-tan. Ez ahaztu!

adi!

Euskalerria Irratia FM 91,4

Egunero astelehenetik ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 12.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteendako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarriketarako.

Karrape Irratia FM 107,8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara *Gauza guztien gainetik*, edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak.

Zangoza

Eskultura eta zeramika ikastaroa

Angel Garrazak zuzenduko du, Gobernuaren eta Zangozako Udalaren eskutik

Nafarroako Gobernuak eta Zangozako Udalak zeramika eta eskultura ikastaroa antolatu dute abuzturako, Buztinaren inguruan lelopean. Angel Garraza zeramikagile eta eskultore nafarra izanen da zuzendaria. Ikastaroaren barruan, hitzaldiak ere eskainiko ditu Garrazak, eta Concha Zilbetiren erakusketa ikusgai izanen da Vallesantoro jauregian. Abuztuaren 5etik 9ra egunen dute ikastaroa.

Erredakzioa / Iruñea

NAFARROAKO GOBERNUAREN Arte eta Kultura 96 egitarauaren barruan eskultura eta zeramika buruzko ikastaroa antolatu du Zangozako Udaleko Kultur Batzordeak. Vallesantoro jauregian egingen dute abuztuaren 5etik 9ra, goizez 10ak eta 1ak bitartean eta arratsaldez 5ak eta 8ak bitartean.

Aipatu ikastaroaren zuzendari Angel Garraza eskultore eta zeramikagilea izanen da. Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederretako fakultateko irakaslea da Angel Garraza, eta baita Nazioarteko Zeramika Akademiako kidea ere. Angel Garraza nafarrek erakusketa ugari egin du, baita nazioartean ere. Besteak beste, Madrilgo Arte Garaikideko Museoa eta Bilboko Arte Ederretako Museoa dago bere lana ikusgai. Italia, Finlandia, Holanda, Taiwan eta Japoniako hainbat museotan ere ikus daitezke Angel Garrazaren eskulturak eta zeramika lanak. Sari



Eskultura eta zeramika ikastaroa izanen da abuztuan Zangozan.

ARTXIBOKOA

ugari eskuratu du 1979. urteaz geroztik.

Buztinaren inguruan izenarekin aurkeztu du Zangozako Udalak Angel Garrazaren ikastaroa. 22 lagunentzako lekua izanen da bertan eta parte hartu ahal izateko 10.000 pezetako matrikula ordaindu beharko da. Ikastaroa artista plastikoei, arte plastikoei irakasleei, zeramikagileei, Arte Ederretako ikasleei eta Arte eta Lanbide eskoletako ikasleei dago zuzendua besteak beste. Bestalde, bi beka banatzeko aukera aztertzen ari dira antola-

zaileak. Bekadunak begirale izanen dira ikastaroak iraun bitartean eta ikastaroan zehar egindako ekintzen datuak biltzea izanen da euren lana. Izan ere, aurtengo abenduan datu horiek guztiak jasoko dituen argitalpena kaleratzea da zeramika eta eskultura ikastaroko antolatzaileen asmoa.

Alderdi teorikoak jorratzeaz gain, lan praktikoa egingen dute batez ere ikastaroan parte hartuko dutenez. Alde batetik, parralde bakoitzak bere lan propioa egingen du, eta, bestetik, denen

artean obra kolektiboa egingen dute.

Horretaz gain, bi hitzaldi antolatu dituzte ikastaroan zehar eskaintzeko. Angel Garraza bera izanen da bietan hizlari. Lehenengoan, eskultura eta zeramika buruz ariko da Garraza, eta bigarrenan, berriz, autoreari eta bee obrari buruz mintzatuko da. Ikastaroarekin bat eginez, bestalde, abuztuaren 6tik 18ra bitartean, Concha Zilbeti zeramikagile eta eskultore nafarraren erakusketa izanen da ikusgai Vallesantoro jauregian bertan. X

Lakuntza

Igande honetan ospatuko dute Guardetxeko igoera

■ Hamargarren aldia izanen da aurtengo hau

Erredakzioa / Iruñea

LAKUNTZAKO Kirol Batzordeak antolatuta, Guardetxeko hamargarren igoera egingen dute igande honetan, goizeko hamar eta erdietatik aurrera. Osotara 12 kilometroko ibilbidea egin beharko dute parte-hartzaileek. Lakuntzako plazatik aterako dira eta sei kilometro egin beharko dituzte gora Aralarko baso etxera ailegatu arte. 600 metroko desnibela izanen dute bidean. Baso etxetik bide beretik itzuliko dira berriro Lakuntzako plazara.

Guardetxeko igoera, desnibela dela-eta, oso gogortzat jotzen dute eta mendi proben ba-

rruan dago sailkatua. Aurtengo ekitaldian parte-hartzaile guztiak jasoko dute sariren bat. Parte hartu nahi duenak izena igoera hasi baino ordubete lehenago eman behar du. Dohainik izanen da parte-hartzea. Orain arte egindako ekitaldietako errekorra Juan M^a Garin Alegiarrak du. 1992. urtean lortu zuen, 48 minutu eta 47 segundotan eginez. Marka hori ontzen duenak 10.000 pezetako saria jasoko du.

Guardetxeko igoera egin bitartean, Lakuntzan bertan proba ezberdinak egingen dituzte alebin, benjamin eta infantilek. Parte-hartzaile guztiak domina jasoko dute. X

Atarrabia

Kultur egitarau zabala prestatu dute ekainerako

■ Musika eta erakusketak izanen dira nagusi

Erredakzioa / Iruñea

ATARRABIAKO UDALAK ekaineko kultur egitaraua prestatu eta aurkeztu du. Erakusketak eta musika izanen dira bihar hasiko den hilabeteko protagonista nagusiak. Bihar, hain zuzen ere, arratsaldeko zortzietan Atarrabiako parrokiari, Amigos del Arte taldeak udaberriko kontzertua eskainiko du. Datorren ostegunean ere, Hilarion Eslava Musika Eskolako ikasleek ikasturtearen amaierako kontzertua eskainiko dute. Arratsaldeko zazpi eta erdietan izanen da zineman.

Kalea ere hartuko du musika. Igandean Atarrabiako gai-

teroak ibiliko dira karraketan; 9an, Iruña Musika Banda; 16an, Raices Norteñas taldea; 23an, Ataitz taldea; eta 30ean, Ecos de Navarra taldea. Antso Azkarra plazan eskainiko dute euren ikuskizuna, eguerdiko ordu batean guztiak.

Erakusketei dagokienez, hilaren 17a eta 21a bitartean Isabel Ibañezen tailerreko lanak izanen dira ikusgai Kultur Etxean. Hilaren 28ra bitartean, berriz, parrokiako olio tailerreko lanak izanen dira Zaharretxeko paretetan zintzilikaturik. Atarrabiako Udaleko Kultura eta Gazteria Batzordeak antolatu ditu ekaineko ekitaldi hauek guztiak. X

Beintza-Labaien

Bihar izanen da Kukumiku lehiaketako azken kanporaketa

■ Malerrekako

Langarra Euskara

Taldeak antolatu du

Erredakzioa / Iruñea

MALERREKAKO Langarra Euskara Taldeak 13 eta 14 urte bitarteko gaztetxoentzat antolatu duen Kukumiku lehiaketa abian da. Dagoeneko lehendabiziko bi kanporaketak egin dituzte, lehendabizikoa maiatzaren 18an Eratsunen eta bigarrena maiatzaren 25ean Sunbillan. Galdere-erantzun eta inteligentzia jokoek osatu dute lehiaketa eta 18 bikote ari da parte hartzen. Bihar, hain zuzen, hirugarren eta azken kanporaketa jokatu dute Beintza-Labaienen. Finala, berriz, datorren larunbatean jokatuko dute Doneztebeko zinemaren. Han izanen dira hiru kanporaketetan sailkatutako haurrak, eta bertatik aterako da aurtengo Kukumiku lehiaketako irabazlea.

Aurten bigarren aldiz antolatu du Langarrak Kukumiku lehiaketa, eta lehenbizikoa bezain arrakastatsua izan da orain artean. Lehiaketa honen bidez, bestalde, euskararen normalizazioaren bidean gaztetxoengana hurbildu nahi izan du Malerrekako Langarra Euskara Taldeak. «haiek baitira, zalantzarik gabe, euskararen lekukoa eskuratuko dutenak». X

Tutera

Bardeetako tiro poligonoaren aurkako martxa igandean

■ Bihar kontzertua izanen da Tuteran

Erredakzioa / Iruñea

AZKEN zortzi urteetan bezala, Bardeetako tiro poligonoaren aurkako martxa egingen dute igande honetan Poligonoaren Aurkako Batzordeak antolatuta. Aurretik, bihar hain zuzen, kontzertua izanen da Tuteran. Bertako zezen plazan La Viuda Negra eta El Perro Verde taldeak ariko dira, gaueko hamarretatik aurrera. Sarrerak 800 pezeta balioko du bertan erosiz gero, eta aurretik erosita, 700 pezeta.

Biharko kontzertuaren ondoren, igandean goizeko hamar eta erdietan bilduko dira aurtengo Bardeetako tiro poligonoaren aurkako bederatzigarren martxan parte hartuko dutenak. Poligono-rako errepidea izanen da topagunea denentzat. Martxa eguerdian hasiko dute, eta ondoren, herri bazkaria egingen dute Yugon. X

Artista nafarren erakusketa
Eskoziako Highlandsen

Nafarroako artea Eskoziako Highlandsen

Lurralde garaietako hiru aretotan ikusgai da lau artista nafarren bosna koadroz osaturiko erakusketa

Jokin Manzanos, Teresa Izu, Santiago Garcia eta Alfonso Askunze artista nafarrek bosna koadro zintzilikatu dituzte Eskoziako lurralde garaietan, Highlands-Nafarroa trukearen barruan. Uztailaren 27ra bitartean izanen dira bertan nafarren lanak. Aurretik —joan den urteko azaroan Iruñean eta aurtengo otsailean Bilbon— lau artista eskoziarren obrak ikusgai izan ziren Euskal Herrian.

Edurne Elizondo / Iruñea

JOKIN MANZANOS, Teresa Izu, Alfonso Askunze eta Santiago Garcia artista nafarren lana Eskozian da ikusgai joan den apirilaren 24tik. Iona Galleryn izanen da lehendabizi nafarren erakusketa, Kingussien, hil honen 18ra arte. Datorren ostiraletik hilaren 29ra arte St. Fergus Galleryn izanen da, Wicken, eta uztailaren 5etik 27ra, azkenik, Thurson, Swanson Galleryn.

Artista nafarren erakusketa Highlands-Nafarroa trukearen barne antolatu dute Eskozian. Aurretik, proiektu beraren eskutik, Eskoziako lau artistaren lana ekarri zuten Iruñera joan den urteko azaroan, eta Bilbora gero, aurtengo otsailean. Craig MacKay, John MacNaught, Alex Houston eta Hector Pottie eskoziarrak izan ziren Euskal Herrian, Fir-Chlis (Iparraldeko goiz-argia) izenburuko erakusketaren eskutik.

Nafarroaren eta Eskoziako Highlands eskualdearen arteko arte trukearen atzean Tony Grady ingelesa dugu Euskal Herrian. Margolaria da bera ere eta artista eskoziarren Euskal Herria etortzeko agertu zioten nahia aintzat hartuz bultzatu ditu horien eta nafarren erakusketak. Eskozian, Highlands eskualdeko Kontseiluak hartu du bere esku Manzanos, Izu, Askunze eta Garcia-ren erakusketa antolatzea eta bereak dira hauen lanak ikusgai diren hiru aretoak. Euskal Herrian, baina, Tony Grady izan da arduradun bakarra nahiz eta eskoziarren erakusketa egin eta proiektua ezagutu ondoren, trukearekin aurrera jarraitzeko interesa agertu duen Iruñeko Udalak. Ildo horretatik, hain zuzen, baliteke Eskoziatik itzulitakoan nafarren marrazkiekin erakusketa bat antolatzea Udalak, datorren urteko urtarrila aldera. Irlandan ere zintzilikatuko dituzte lanok agian.

Paper gainean egindako lan berriak • Artista nafarrek Eskoziara bidali duten lanak, paper



Eskoziako Highlands eskualdean daude ikusgai lau artista nafarren obrak.

JOXELACALLE

gainean egindako obrak direla erran behar da lehenengoz. Bost lan bakoitzak. Manzanos, Izu, Askunze eta Garcia-ren lanak elkarrekin dauden lehen aldia da hau. Lanok, baina, bitan banatzen direla erran daiteke, Manzanos eta Izuren alde batetik eta Garcia eta Askunzerena bestetik: «Teresaren eta bion marrazkiek kolorea azpimarratzen dute gehiago; Santiagoren eta Alfonso-ren lanek, berriz, tinta txinatarrak dute oinarri», azaltzen du Jokin Manzanosek.

Ez da, hala ere, nahita eginda-

Askunzeren irudikoz, eta iritzi berekoak dira Santiago Garcia, Jokin Manzanos eta Teresa Izu.

Tony Gradyk errandakoari so eginez, bost lan egin ditu bakoitzak, paper gainean. «Paperaren lan egiteak asko erakarri ninduen», Teresa Izuren hitzak, «egiten ari nintzen lanaren guztiz ezberdina den obra egiteko aukera eman dit. Normalean mihiseak erabiltzen ditut, pigmentu eta olioekin. Paperarekin lan egiteak, beraz, teknika aldatzera behartu nau, askoz ahulagoak baitira papera eta kartoia». Azken

gainean lan egitera ohituta nago. Papera askoz azkarragoa da, lan egiteko modu arinagoa da». Gaiari dagokionez, pinturak planteatzen dizkion arazo teknikoak islatu nahi izan ditu, «eta era berean, arazok eguneroko bizitzan duten eragina». Jokin Manzanos haur zelarik hasi zen margotzen. «Hasieran dena zen bezala agertu nahi nuen, perfektu. Mariano Royoren tailerrera joan eta abstrakto atera nintzen bertatik», gogoratzen du. Margotzen hasi zenetik, pintura murriztuz joan da, «soberan zegoena kendu dut,

rreskuratzeko gogo». Santiago Garcia bere pinturak izan duen garapenari buruz dioenez, «hasieran oso nabaria zen Arte Ederretako eragina —Bilbon ikasi zuen—, bolumena egiten nuen, objektuak ia. Oso kolore biziak erabiltzen nituen. Baina pixkanaka pinturari eman diot lehen-tasuna, olioari. Nire lana kontzentratuagoa da orain».

Trukearekin jarraitzea da asmoa • Eskoziako Highlands eskualdearen eta Nafarroaren arteko arte trukeak aurtan ez du

Jokin Manzanos: «Hasieran dena zen bezala agertu nahi nuen, perfektu. Mariano Royoren tailerrera joan eta abstrakto atera nintzen»

Teresa Izu: «Paperarekin lan egiteak teknika aldatzera behartu nau, lehen erabiltzen nituen materialak baino askoz ahulagoak baitira papera eta kartoia»

ko banaketa. Izan ere, Tony Gradyk berak aukeratu zituen laurak Nafarroako Museoan Nafarroako artisten txostenak aztertu ondoren.

Bada beste kointzidentziarik, dena den. Teresa Izu eta Jokin Manzanos Mariano Royoren tailerretik igaro dira; Alfonso Askunzek eta Santiago Garcia, berriz, Iruñeko Arte eta Lanbide Eskolan egin zuten bat.

Tony Grady joan den urteko irailean proposatu zien artista nafarrei Eskozian erakusketa egitea. Zalantza bakarra ere ez zuten izan. «Halako ekimenak beti dira interesgarriak» Alfonso

aldian bere lanetan irudikatu dituen erle eta erlauntzak eta kolore biziak alboan utzi ditu oraingoan. «Intsektu sinpleak irudikatu ditut, oso linealak. Baina beti dago forma bat». Silografiak egin ditu Teresa Izuk. Egurraren gainean marraztu du eta gero paper gainera ekarri ditu marrazkiok, kolore gutxirekin. Obabakoak Atxagaren liburuak eragin handia izan du bere lanean aitortzen duenez.

Izuk ez bezala, Jokin Manzanosek orain arte egindakoari jarraipena eman dio Eskoziako erakusketa prestatzerakoan. «Formatoa da aldatu dena. Ehun

koloreak, materialak eta formak. Koadro bat osatzeko behar den gutxienari eutsi diot bakarrik». Hori izan da Jokin Manzanosen pinturaren ibilbidea.

Alfonso Askunzek eta Santiago Garcia tinta txinatarrak aukeratu dute. Askunzek marrazki tekniko laminak erabili ditu, lehendik eginak. «Banatuta zegoen materiala bildu dut bere esanahia aldatzeko. Partehartze berri eta zuzena da». Argazkien transferentziak erabili ditu.

Santiago Garcia ere gustura aukeratu du tinta txinatarrak. «Lehen ere erabili izan dut baina gero alboan utzi eta banuen be-

Nafarroako erakunde publikoen babesik izan. Hemendik aurrera, baina, gauzak alda daitezke. Erran bezala, baliteke urtarrila aldera Eskozian den lau artista nafarren erakusketa Iruñean jarritzea. Halaber, Eskoziaren eta Nafarroaren arteko trukearekin jarraitzea da antolatzaileen asmoa. Hori lortu nahi du Tony Grady behintzat. Printzipioz, beste lau artista eskoziar hona ekartzea da asmoa eta ondoren artista horien eta Udalaren artean erabakita, Nafarroako beste lau artista Eskoziara joatea. Asmo hauek guztiak, hala ere, zehazteke daude oraindik. X

Artista nafarren erakusketa
Eskoziako Highlandsen

mintzoak

Xamar

Jokin Manzanos

«Arteak ez du saltzen»

Arteak ez du jendearen artean interesik pizten, bere ustez



Jokin Manzanos.
JOXE LACALLE

JOKIN MANZANOS iruindarrak (1962) Mariano Royoren pintura tallerrean ikasi zuen 1980tik 1985era bitartean, Teresa Izuk bezala. Iruñeko Arte eta Lanbide Eskolan ere aritua da, zeramika ikasten hain zuzen. Donostian, berriz, Artelekun, pintura ikasi zuen Rafael Canogarren tallerrean.

Azken urteetan, beste margo-lariren lanarekin batera zintzilikatu ditu bere lanak bai Iruñea, Donostia, Altsasu, Sevilla eta Valentzian egin erakusketetan. Bakarrik ere eginditu hainbat erakusketa, Pintzel aretoan eta La Cava eta La Calle tabernetan besteak beste.

Lehiaketetan ere parte hartu izan du Jokin Manzanosek, eta irabazi ere bai hainbat sari. 1985. urtean, hain zuzen ere, Nafarroako Arte Plastikoen lehiaketan lehen saria irabazi zuen marrazkien arloan, eta hirugarrena pinturan. Nafarroako Gobernuaren arte plastikoen sorkuntzarako dirulaguntza ere jaso zuen 1987an. Nafarroako Museoan badira bere lanak.

Artearen eta hezkuntzaren mundua batu nahi izan ditu Jokin Manzanosek. 80ko hamarkadan irakasletza ikasitza eta irakasle heziketa artistikoa aztertu zuen. «Ez dakite deus, penagarria da ikastetxeetan bizi den egoera. Ez gaude haurrak motibatuko prestatuta, eta, are okerragoa, askotan irudimena eta sormena deusezten dute irakasleek».

Arteari dagokionez, Iruñean eta Nafarroan, oro har, bizi den egoera salatu du Manzanosek. «Ez dago mugimendurik, ez dago artistak biltzeko lekurik, ez dago ikasteko tailerrik. Gero eta jende gutxiago joaten da aretoetara eta joaten direnak gero eta zaharragoak dira. Kezkatzekoa da hori. Arteak ez du jendearen interesa pizten, ez du saltzen». X

Teresa Izu

«Artea unibertsala da»

Eskoziako erakusketak esanahi berezia da berarentzat

TERESA IZU Iruñean jaio zen 1965. urtean eta 1984an arte aplikatueta graduatu zen. Urte berean Mariano Royoren tallerrean ikasi zuen. 1985. urtean, Nafarroako Gobernuak emandako bekari esker, Josep Guinovardekin ikasi zuen Madrilgo Arte Garaikideko Tallerrean, eta 1987an, berriz, Antonio Inverniren tallerrean ikastaroa egin zuen Lisboan. Ondoren, 1990ean, Nafarroako Gobernuaren sorkuntzarako dirulaguntza jaso zuen. 1995. urteaz geroztik Nafarroako Museoan ikus daiteke Teresa Izuren hainbat lan.

Teresa Izuk egin dituen erakusketak ugariak dira, horien artean, Madril eta Iruñean hainbat taldeka, eta baita bakar-ka ere. Horien artean, Pintzel edo Kribia aretoetan, eta Zangozan eta Zaragozan egindakoak aipa daitezke.



Teresa Izu.
JOXE LACALLE

Teresa Izuren lanak, baina, pareta batean zintzilik ezezik, Rosa Barasoain idazlearen liburu batzuetan ere ikus daitezke, *Poemas a tu belleza* eta *La niña de agua y su amigo el mar* liburuetan hain zuzen ere.

Egun Eskozian Manzanos, Garcia eta Azkunerekin batera ikusgai duen erakusketari buruz, beretzat esanahi berezia ikusgai duen erakusketari buruz, beretzat esanahi berezia Eskozia bera. Hemengo guztiz ezezaguna da eurentzat eta baita hangoa guretzat ere. Baina hala ere, harreman berezia dago.

Eskoziak ez ezagutzea, hala ere, ez da arazoa bere ustez, «arte unibertsala baita. Europari dagokionez, ez dago ezberdintasunik, berdin ulertzen dute han eta hemen gure lana. Niretzat tristetena, koadroa edo marrazkia begiratu eta zer den galdetzea da, bakoitzarentzat esanahi ezberdina baitu. Galdera horrek ez du zentzurik». X

Alfonso Askunze

«Oinarrian ez da inbertitzen»

Pintura ezezik eskultura ere jorratu du



Afonso Askunze.
JOXE LACALLE

ALFONSO ASKUNZE iruindarrak (1966) Iruñeko Arte eta Lanbide Eskolan ikasi zuen pintura, zeramika eta diseinua. Bertan loritu zuen barruko diseinuan eta publizitate teknikan titulua. Horretaz gain, Eduardo Arroyoren pintura tallerrean egon zen eta ikastaroa egin zuen Alberto Oehlenekin. Halaber, Calellako Nazioarteko Eskolan grabatu ikastaroa egin zuen.

Pintura ezezik, eskultura ere landu du Alfonso Askunzek, «baina gauza puntualak izan ziren, ideiak, baliabide zehatzekin egindako partehartze zehatzak. Baina ni batez ere pintorea naiz».

Bere ustez, oinarriak falta dira artearen munduan, hau da, «arazoa ez da jendea erakusketak ikustera ez dela joaten, arazoa ez da arteari buruzko aldizkariak ez direla saltzen edo gure lanak ez dituztela erosten, benetako arazoa da inork ez duela oinarrian inbertitzeko ardura hartu. Hemen behar duguna arte garaikideko zentro bat da».

Alfonso Askunzek lehiaketa anitzetan hartu du parte eta sari ugari eskuratu ditu; besteak beste, Nafarroako Arte Plastikoen lehiaketako lehen saria eskuratu zuen marrazkien atalean 1982an, grabatuaren atalean 1983an, pinturaren alorrean 1984an eta alor berean bigarren saria 1986an eta 1988an. 1994an, berriz, Artista Gazteen eskultura lehiaketan lehen saria irabazi zuen.

Alfonso Askunzek egin dituen erakusketak ere ugariak dira: Nafarroako Jaialdian 1988, 1989, 1993 eta 1994an, Artista Gazteen erakusketan 1987, 1988, 1989, 1991, 1992 eta 1994an. Halaber, bakarrik eta taldeka ere hainbat aretotan izan dira bere koadroak, horien artean, La Cava eta Dieciseis aretoetan. X

Santiago Garcia

«Fakultateak asko eragin dit»

Eskulturaren lizentziatua da EHUn

1965. URTEAN Iruñean jaio zen Santiago Garcia. Pintura Iruñeko Arte eta Lanbide Eskolan ikasi zuen eta horren ondoren, 1988an, eskulturaren lizentziatu zen Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederretako Fakultatean. «Eskultura ikasteko aukera izan nuen eta ez nion ihes egiten utzi». Berak aitortu duenez, nabaria da Arte Ederretako Fakultatean emandako urteen eragina bere obretan, «hasieran batez ere».

1985. urteaz geroztik ugariak dira beste margolari batzuekin —eskultura erakusketetan ere hartu du parte— egin dituen erakusketak, baita bakarrik ere. Taldekako erakusketen artean, Artista Gazteen artean eta Nafarroako Jaialdian egindakoak dira aipagarri. Bakarrik, berriz, Iruñea, Madril, Bilbo eta Donostian izan ditu bere lanak ikusgai, besteak beste.



Santiago Garcia.
JOXE LACALLE

Nafarroako Gobernuak banatzen duen sormenerako dirulaguntza ere jaso zuen 1988an, eta 1990ean Berlinean ikasteko beka. Sari anitz ere jaso baditu, adibidez, Artista Gazteentzako Iruñeko lehiaketako lehen saria pinturan 1985ean, Ertibil eskultura saria 1987an eta Arte Plastikotako lehen saria eskulturaren 1988. urtean. Gasteizko eskultura biurtekoan, halaber, ohorezko diploma jaso zuen urte berean.

«Haurra nintzela jada margotzen nuen eta, horregatik, eskultura ikasteko aukera izan nuen ez nuen bi aldiz pentsatu. Gaur egun, hala ere, eskultura baino gehiago pintura da lan egiteko aukeratu dudana, marrazkiak egiten ditut batez ere». Hori dela eta, gustura hartu zuen Eskoziako erakusketaren ideia. «Tinta txinatarra berriro hartzeko aukera izan nuen gainera». X

Ardiak kontatzen

PSOekoak nafar gobernutxora heldu zirelarik gertatu zen istorio hau, urteak baditu beraz.

Kultur saileko bi buru handi J.M. Sanchez Carrioni joan zitzaizkion lanak eskainiz. Funtsean Txepetxek ikerketa soziolinguistikoki bat egin zezan nahi zuten Euskararen egoera nolakoa zen ikusteko. Txepetxek aski ongi ihardetsi zien. Garbiki erran zuen arras ongi ezaguna zela egoera Nafarroan, ikerketa ugari bazirela eginak; gehiago zena Nafarroa zela linguistikoki hobekien ezontzen zen herrialdea estatu guzian. HOLA izanik, hizkuntzaren naurriak hartu ordez, hizkuntzaren alde naurriak behar zirela hartu, ez beitzen gauza bera.

Saileko goi-buru handiak ados heldu ziren deplauki... ez zuten ja ere erran. Halere ikerketa egin zuten. Ondorean, Euskararen aintzinean ez xakinki zer egin, kasik urteoro plazaratzen dute ikerketaren bat. Aurten beintan ere bai.

Oraikoa izigarritzko jende saldoa omen dago Euskararen alde... teoriarik bedere. Zinez izanik ere... zer planak ditu gobernuak hizkuntzaren normalizatzeko? Edo hobeki erranik... galtzetik begiratzeke? Lotsa ote da naurrien hartzeko seriozki? Zeren-gatik? Ikerketak ez ote du frogatzen gehiengo alde dagoela? Erantzunak... heldu den ikerketan?

Ez gira nekaturko mintzoaren aldetik bi eskualde badirela adiarazi nahiz; batean euskara hilik da osoki, hontan zernahi egirik aintzina egitea da. Bigarrenean mintzoak badu hatsik oraino; hontan, aldiz, erreposki ala fite itzaltzen ari da. Bietan batez ere egiten dena hizkuntzaren irakaskuntza bultzatea da, erabilpenerako bideak eskasten direlarik.

Duela urte zemeit mundu osoan miloika jende ikasten zuten latina, eta halere hizkuntza hila zen eta da, salbu filologian edo ikerketetan.

Artzainak ardiak kontatzeko ditu galtzearen lotsaz... gobernuak? zeren-dako? denbora pasa; artean ardi bakoitzak bilatu beharko du belardia laguntzarik gabe... galtzen edo hiltegian finitzen ez den bitartean. ■

Xanti Begiristain

Zortzi urte eta gero hau

■ Orain dela egun batzuk Nafarroako Elbarrien Koordinakunde-Elkargoak prentsaurreko baten bidez iragarri du hemendik aurrera hasi behar duela serioski eta era tinko batean salatzen Nafarroan egiten diren legehausteak. Honek zer esan nahi duen? Ba, dagoeneko joan direla zortzi urte Foru Legea gauzatu zenetik eta mugikortasun murrizteko pertsonak ez direla batere gustura eta pozik lege horren betetzeari dagokionez. Beste hitz batzuek adierazita esan nahi da kasu asko eta askotan legea ez dela bete, eta beraz hautsi egin dela, baina hala eta guztiz ere, orain arte, ez da aparteko ezer gertatu, hau da, gaizki egindako gauza gehienak ez dira konpondu eta gezurra badirudi ere, lege hausleak, momentura arte, ez dira zigortuak izan. Hau, jakina, jasanezina da, zeren eta legeak, oso txarrak ez badira behinik behin, betetzekoak dira. Foru Lege horrek baditu puntu batzuk hobetu ahal direnak, baina dena den ezin da esan Legea txarra denik; beraz, bete beharko litzateke, baina hori portzentzia handi batean gertatzen ez denez gero, gutxitu fisikoek kolektiboetakoak protestan jarraitzen dugu.

Esan bezala, saiatuko gara salatzen Nafarroa osoan, ahal dugun neurrian, eta prozedura administratibo eta juridikoari buruz ahalegingo gara azken muturreraino eramaten. Gure helburua zigortzea baino gehiago okerrak zuzentzea da.

Baina gauza hauek guztiak edo gehienak gutxienez esanak daudenez gero, ez zaituztet gehiago nekarazi nahi beraien errepikapenarekin, alderantziz, aprobetxatu nahi dut datu objektibo batzuk kaleratzeko. Horretarako hasi behar dut esaten, Departamentuarterko Batzordeak bultzaturik, Ongizate Sailak agindu zuela ikerketa bat egin zedin Iruñean oztupo fisiko (eta sentzorial batzuei) zegokionez. Martin Oteiza soziologoak burutu du bi alditan: lehenengoa 1994an eta bigarrena 1995ean. Lehendabizikoan Alde Zaharra, Igo eta 2. Zabalguneak, Iturrama, Abejeras eta Etxabakoitx auzoak ikertu zituen, eta bigarrenean Txantrea-Orbina, Arrotxapea-San Pedro, Sanduzelai, Donibane, Ermitagaña, Mendebaldea, Azpilagaña eta Arrosadia-Sadar. Hemen saiatuko naiz islatzen lehenengo ikerlanetik ateratako daturik nabarmenak

(bigarren ikerketaren emaitzak oraindik ez dizkigute bidali, baina seguru asko oso antzekoak izanen dira). Goazen ba aurrera datu horiekin.

a) Espaloiak, 291 tartetan egoera txarrean daude, arrakalak ea zuloguneak dituztelako edota baldosak falta dituztelako.

b) Zortzi espaloi daude beren baitan aldatsa dutenak; horietatik zazpik gehiegizko malda dute.

d) 46 espaloi-tartetan hautabiderik gabeko eskailerak daude.

e) 37 espaloitan % 10 baino gehiagoko malda dago, eta 24 kasutan % 12 baino handiagoa.

f) 116 oinezko pasabide ez daude seinalizaturik



(zebrabidea edota semaforoa falta dute)

g) Txantrean eta Arrosadian 1995ean leku askotan falta ziren oinezkoen pasabideak.

h) 1.334 pasabide urbanizaturik daude. % 27 erabat beharatu daude (364), % 6 erdizka (86) eta % 66,3 batere beharatu gabe (884).

i) Laburbilduz esan dezakegu honako hau: Kasuen % 60an jaitsierak utzi dira beren bukaeretan 2 zentimetro baino gehiagorekin, eta % 24an 5 baino gehiagorekin.

Tira, datuok askoz ere gehiago dira eta arrunt adierazgarriak, baina gaurkoz ez zaituztet gehiago zigortu nahi.

Beraz, ikusten duzuenek, luzerako dugu oraindik saltsan hemen. Laguntza eskainiko bazenigute oso ongi hartua izanen litzateke. Eta ez ahaztu orain fisikoki ongi zaudetenok edozein momentutan izan zaitezketela mugikortasun murrizteko pertsonak. Ongi ibili. ■

Klasiko bitxi, arrunt klasiko

Joxemiel Bidador

Emaztekien segida II: Bizenta Antonia Mogel Elgezabal alegigilea

■ Maria Bizenta Antonia Azkoitian sortu zen 1782.eko ekainaren seian. Petronila Elgezabal amatxoa Zamudiokoa zuen eta aita, ordea, Markinakoa. Bertako miriku zuen tenore hartan, eta hortik dugu halabarrezko jaioterri giputza, bada Erbeitiko Milagron erroak zituen Mogel sendia aspaldi batez bazen Bizkaierrian pausatua. Bestalde Mogeldarra medikuntza ohiko ogibide zeukan aikoa bagenuen: Juan Antonio Mogel Urkiza apez ospetsuaren Andres berraitona Calatayud aldeko Ruescan aritua zen, Domingo aitona, berriz, Agurainen eta Markina-Xemeinen, eta Juan Ignazio aita Deban, Agurainen eta Eibarren. Azken honetan bada Juan Antonio bera jaioko zen, Bizenta iloba bezala, aitaren lanaren kariaz, nahiz geroxeago biak Bizkaia aldera jo gutiz gehienerako. Bizentari gure arreta osoa zuzendu aurretik, ez genuke aipatzeke laga gura Juan Ignazio hark, Deban ziharduela, lehiaketa batera aurkeztu zuen lan bitxi samar bat, bigarren saria eskuratu zuena gainera: *Dissertación physico-médica-anatómica en respuesta de la pregunta hecha por la sociedad médica de la Real Congregación de Nuestra Señora de la Esperanza en el día 6 de enero de 1750. ¿Por qué siendo el regular domicilio de las lombrices el canal intestinal producen picazón en las narices?*, Madrilgo Perez-Sotorenean argitaraturik 1751.ean.

Aita gazte hil zitzaioela, bere anaia Juan Joserekin Markinaratu zen Juan Antonio osabarengana. Peru Abarka elaberriaren egileak kultur bideetan abian hazi eta hezi zituen ilobak, eta horrezkero badakigu zortzi urterekin latina ikasteari ekin ziotela. Latinaz ez ezik baita frantsesa, espainiera, filosofia eta, nola ez, euskaran ere trebatu zen Bizenta. Behin baino gehiagotan aipatua izan da Juan Antonlok bereganatu zuen arta neskatoak ikas zezala, garaiko aurreiritzi ororen gainetik, baina egia da, eta onartu beharrean gaude, hagitx gehiago egin zezakeela, batik bat zientzietako alorrari bagagozkio, alta ezin da ahantzi sendiaren lanbidea. Osabaren zuzendaritzapean alegi itzulketan buruta lanak bere uzta eman zuen, eta 22 urte zituela bilduma ezaguna inprimatzerara eman zuen 1804.ean: *Ipui ónac ceintzuetan arqultuco dituzten euscaldun necazari ta gazte guciac eracaste ederrac beren vicitza zucentzeco*. Donostiako Antonio Undiano liburugilearen etxean. Bertan berrogeita hamar alegi jaso zuen, Juan Antonio osabak bertsoz taxuturiko beste zortzi alegitako gehigarri batekin. Idazkia behin baino gehiagotan berrargitaratua izan da.

1817.ean Bilboko Eleuterio Basozabal merkatariairekin ezkondu zen Markinako Erdotza baselizan eta Abandora joan zen bizitzera. Bertan idazteko zaletasuna berpiztu zitzaion edo agian argitaratzeko aukera hobea zukeen, batez ere aitaginarraren zuen Jose Basozabal zilargina inprimatzale lanetan sartu zenetik. Hartan, esate baterako, *Modo de ayudar a bien morir* izenburukoaren euskal irauketa argitaratu zuen, beti ere Zabalak zekarren arabera, izan ere egun haren hatzarik ezpaita inon. Bizkaiko Aldundiaren itzultzaile lanez ere ba omen zen arduratu, horren guziz ziurtatzeko berririk ez izan arren. Guziarekin itzultzaile gisa ezagutu ahal izateko, hortxe dugu Fernando VII.a erregeak 1820.eko martxoaren 10ean karrikaratu adierazpen bati Luis Borbon Toledoko artzapezpikuak gehitu zion sarrera iruzkinduaren itzulketak: *Luis de Borbon Jaungoicuaren onerichiz Erromaco Elexa Santuco Cardenal, Santa Maria Scalaren icenecua, eta Arzobispo Toledocua, Españaco lelencarija, neure elexa lelencari onetaco cabildu gustiz mañtari eta abar*, Bilboko Apraiz baitan elki zena.

Egin zituen eta gureganatu zaizkigun bestelako lanak, ondu zituen hainbat eta hainbat gabon kanta dira. Hauek ezkondu baino lehenagotik inprimarazten hasia zen, baina egun eskura ditugunak 1819-1832 urte bitarteari doazkionak lirateke bereziki. Bizentaren ondarreko urteak etziren zeharo onak, eta senarra hil ostean, honen ondasunak koinatuen eskuetara joan zirelako, epaitegietara eraman zituen basozabaldarrak. Auzitan eta gaixorik zendu zitzaigun beraz gure alegigile haundia 1854.eko irailaren 29an, artzaiak Bardeetara joaten direnean, 71 urte zituela: *«Beti nago cantetan, urteric urtera / Ez daquit gaur cer esan, eguñja esatera / Iguez esan nebana, aztuda aurtengo / Gogua daucal otza, orain cantetaco»*. ■



Udaberri txapelketako bosgarren jardunaldiko partida, 1996ko maiatzaren 18an jokatu.

Jesus Luis Aginaga, 1.930 ELOkoa—

Francisco Javier Gamazo, 1.890 ELOkoa.

1.e4,Zf6; 2.e5,Zd5; 3.d4,d6; 4.c4,Zb6; 5.d6,c-d6; 6.Ae3,g6; 7.Zc3,Ag7; 8.Zf3,0-0; 9.Ae2,Zc6; 10.0-0,Zd7; 11.Dd2,e5; 12.d5,Ze7; 13.Zg5,Zf5; 14.gZ-e4,Zf6; 15.f3,Ze3; 16.De3,Ze4; 17.e4.

Trukeek beltzen egoera hobetu dute. Orain ez daude hain uzkurtuta.

17.....Dh4; 18.g3,Ah6; 19.Dd3,Dg5; 20.Zb5,Ah3; 21.fG-d1,f5.

Peoia utzi dute. Ez da jokaldi ona. Baina kontra-

jokoa sortuko du.

22.Zd6,De7; 23.c5,b6; 24.b4,c5; 25.c5,aG-b8; 26.aG-b1,Dc7; 27.Dc3,e4; 28.Ze4,Af5; 29.d6,Dc6.

Ikus koadroa. Gazteluak aldatzea derrigorrezkoa da, zaldia askatzeko. Txuriek, ordea, gaizki kalkukatutako aurreratzea eginen dute.

30.Ac4 xa.

Txarra. 'c5-eko' peoiaren defentsa oztopatzen duelako.

30.....Eh8; 31.Gb8,Gb8; 32.d7,Gd8; 33.Gd6,De4; 34.c6,Ae3 xa; 35.Ef1,Ag4; 36.Ad5,Gf8 xa.

Matea (Db1) saihestezina da. Txuriek eskura zuten partida bota egin zuten.



Euskara «afektibo eta partikularra» erreibindikatu du Patziku Perurenak

Leitzan aurkeztu da inguruko herrietako euskarari buruz egin den azterketa

Leitzako eta inguruko herrietako —Goizue- ta, Arano eta Areso— euskarari buruz Euskara Zerbitzuaren eskutik egin den azterketa aurkezteko hitzaldia izan zen joan den astean Leitzako liburategian. Mikel Olanok azaldu zuen lau herrietako euskara hizkuntzalaritzaren ikuspuntutik, eta Patziku Perurenak ahozko tradizioan jasotako zenbait adibide plazaratu zituen. Eztabaida bizia piztu zen.

Alberto Barandiaran / Leitza

LEITZAKO Euskara Zerbitzuak eskuratu zuen dirulaguntza bati esker abiarazi zuen lau herrietako euskara aztertzeko egitasmoa. Hasieran soilik alderdi linguistikoa zen aztertzekoa, baina Patziku Perurenaren proposamenaren ondorioz, herri literatura jasoko zuen alderdia ere onartu zen lanaren barruan. Joan den asteko ostegunean egindako hitzaldian Mikel Olano arduratu zen berak, Juan Jose Zubirik eta Tomas Azpirozek egindako lanaren laburpena egiteaz, eta Perurenak herri bakoitzean jasotako istorio bana azaldu zuen adi-adi entzun zion jendearen aurrean. Grabazioak eta zuzeneko musika erabili zituen goizuetarrak istorioei lotutako bertsoak irudikatzeke, eta ondoren sortu zen eztabaidatxoa —herri literaturaren balioa, hizkuntzalaritza lanen ekarpena— bizi-bizia eta interesgarria izan zen oso.


Mikel Olanok azaldu zuenez, urte eta erdi inguru behar izan dute lau herrietako hizkeren ezaugarri linguistikokoak biltzen dituen lana egiteko, eta ondorio garbirik eman ez bazuen ere, azpimarratu zuen orain dela horrelako lana egiteko garala, ziztuan aldatzen ari dira-eta herriz herriko berezitasunak. Filologia ikasleak konparazio batzuk egin zituen herri bakoitzean erabiltzen ziren aditz eta hitz batzuen artean, eta funtsean Bonapartek joan den mendean egin zuen sailkapena onartu arren, kritikatu egin zuen printzeak lan egiteko erabilitako metodoa.

Olano labur mintzatu zen, eta Patzikuk hartu zuen txanda ondoren. Lau herrietako artxiboetan urteetan egindako lanaren adibide batzuk mahairatu baino lehen, garbi azaldu zuen bere iritzia hizkuntzaren alde linguistikoko hutsari begiratzen dioten lanei buruz. «Ez naiz batere gramatikazalea», esan zuen hasteko. Eta jarraitu: «Gramatika edo linguistikazale asko daude, gaitz bat badago, hizkuntzaren sailkapena egin zenetik txollo izugarria sortu delako hizkuntzalarientzat eta milioi pila bat mugit-



Mikel Olanok azterketaren alderdi linguistikoa azaldu zuen.

OLALDE



Patziku Perurena herri artxiboetan bila aritu da aspaldi honetan.

XOUSE SIMAL

tzen delako deustarako balio ez duten gauzetan. Nik animatuko nuke euskara zerbitzukoak euskara lotzeko egunero erabili behar diren gauzekin, eta ez ibiltzeko beti euskarari diagnostikoak egiten».

Honek eztabaidarako bidea zabaldu zuen, bai Olanok bai jendarteko batzuek kritikatu zutelako Perurenaren ideia. «Ez da batere imajinario edo estilo onekoa hizkuntzaren alderdi

linguistikoa kritikatzeko beste bati lehenetsuna emateko», esan zion Olanok berak. «Hik lantzen duan alderdi horri ez zaiok eman behar zuten adinako garrantzirik, baina besteari ez zaiok deus kendu beharrik», gaineratu zuen. Ikusleen artean ere izan zen filologoek egindakoa Patzikuren lana baino garrantzi handiagokoa zela esan zuenik. «Orain da garaia altxor hori biltzeko», argudiatu zuen batek, «jendeak jakin dezan nola

Patziku Perurena: «Orain bildu dugun hori, nola eramango dugu bizitasunera? Neretzako modurik zoragarriena da hitz horiek, esaldi eta aditz horiek kontu batekin, gertakari batekin, bere inguruko literaturarekin jaso eta zabaltzea. Hori da hizkuntzaren erabilera arrunta, normala»

hitz egiten den, eta bilduta egon dadin». Halaber, entzuleek azpimarratu zuten ikastetxeetan batua irakasten dela, eta hizkuntza gero eta urriagoa dela, eta horregatik lekukotasun hau edukitzeko garrantzia.

Euskara bizitasunera nola eraman • Patzikuren erantzuna ez zen nolana hikoia izan eta aspaldian defenditzen dituen us-teak berretsi baino ez zuen egin, argi eta garbi. «Orain bildu dugun hori, nola eramango dugu bizitasunera? Neretzako modurik zoragarriena da hitz horiek, esaldi eta aditz horiek kontu batekin, gertakari batekin, bere inguruko literaturarekin jaso eta zabaltzea. Hori da hizkuntzaren erabilera arrunta, normala». Halaber, kritikatu zituen bere lana izendatzeko *etnolinguistik*o edo *kontu zaharrak* etiketak erabiltzen dituztenak. «Gaur egun bizi gara aktualitate zoragarri horren barruan, telebistan sartzen ez dena iruditzen zaigulako pasatua dela, ez dela existitzen. Baina edozeinek irakur dezake duela ehun urteko poema bat, eta orain ari da irakurtzen. Historia

Aranoko kankarrotarrak

HITZALDIA lau herrietan bira egiteko aprobetxatu zuen Perurenak, eta herri bakoitzeko istoriotxo bana kontatu zuen: batzuk ezagun samarrak —Trabuko ezizenez ezaguna zen Goizuetako pertsonaiaren ingurukoa, Mikel Laboak kanta ezagun batean aipatua—, beste batzuk ez hainbeste. Haien artean Aranoari dagokiona aukeratu dugu, denen tankera azaldu deza-keelakoan.

Bada, Plazaola trenbidea egin zen garaian Aranokoak ziren kankarrotarrak ezizenez ezagunek eta Muñagorritar anaiek borroka bat izan zuten. Hartan Juan Muñagorrik Inazio Mitxelena kankarrotarra menderatu zuen. Hurrengo igandean, kankarrotarietako beste batek esan zion Juani berari ekiteko nahi zuenean, indarrak probatuko zituztela. Borrokan hasi ziren, eta «izkina hartako batean» kontatu zuen Patzikuk, «baze goen errota-harri bat, eta bueltan aspian tokatu omen zitzaion kankarrotar horri, eta Juanek hartu burua bi belarritik eta buruarekin jotzen hasi omen zen. Erdi hila edo galduxa izango zuen, eta Inazio Lizarraga apeza atera omen zen, eta hark moztu omen zuen borroka». Kontua da Muñagorritarren aita zela Leitzako alkatea, eta bazituela kontaktu onak, eta zigor handirik ere ez zioten jarri. Kankarrotarrok, beraz, denak kontra zituztela eta, iratzemeta batzuk hartu eta lanean erabiltzen zuten dinamita barruan sartu zuten. Iratzemeta guztiak airera bota zituzten.

ez da gaurkotasuna edo zahar-tasuna, modernitatea eta etnologia: gure burua da atzera eta aurrera dabilen argi bat». Halaber, berreskurapen filologiko huts batek ezertarako balio ote duen zalantzan jarri zuen idazle eta ikerleak. «Euskara hutsarekin ez dugu giroa sortuko. Ume bati esango diogu *ikus dot* erabiltzeko, Leitzan erabiltzen den bezala, eta horrek ez du inolako logikarik. Hizkuntza hori transmititu behar da kultura batekin, eta afektibitate batekin. Hizkuntzarekin ezin da abstrakzio bat egin, baina erabili behar da gauza konkretuetarako. Ume bati kontu zoragarria kontatzen badiozu zure hizkeran, ume horrek beti buruan edukiko du, baina esaten badiozu 'esan nik dot', erdarara joko du».

Horri lotuta, euskarak berez duen sen horri eustekotan herri literaturan bilatu behar den ideia azaldu nahi izan zuen Perurenak. «Hizkuntza batek behar du berezitasun eta partikularitasun kulturala, pertzepzio bat bere inguru, bere historia eta bere lurrarekiko. Katalan, galego, euskaldunek beti gai berari buruz hitz egiten badute modu berean, eta diferentzia bakarria baldin bada batek euskaraz, besteak galegoz eta besteak katalanez egiten duela, horretarako nahiago dut espainolez denak egin eta kitto. Hobe genuke horrela. X

* ◆Carlos Garcia◆ Eskalatzailea

«Ez naiz profeta neure herrian»

Yosemitiko parkean (EEBB) dagoen 'The Nose' bide famatuari berrekingo dio hil honetan Carlos Garcia eskalatzaile nafarrak. Berriz ekin, bai, iazko saialdiak porrot egin baitzuen, irail aldean egin zuen beroa zela-eta. Joan den urteko planteamendu berbera —era askean eta bistan bide gehiena— eramango du, baina egun bakar batean egin beharrean hirutan egiteko asmoa daukate orain.

Alberto Barandiaran / Iruñea

Min egin zion Carlos Garcia inoiz egin duen saialdirik zailenak huts egiteak, eta, aseta-edo, sei hilabetez utzi zuen eskalada. Orain, lasaiago, hainbeste presiorik gabe —soilik hiru lagun joango dira, eta ezezagunak gainera—, 'The Nose' ezezik, beste bide batzuk ere ezagutzeko asmoa dauka Garcia.

■ Zergatik aldatu duzu iaz eraman zenuen taldea?

Taldea aldatu da gauza askorengatik: dirua, oporrak... ez da dena nire esku. Oraingo arazoa da asko pisatzen duen fardela eraman beharko dudala. Iaz 12-15 litro ur generaman fardellean, eta ezer gutxi gehiago. Baina orain material pila eraman behar dugu: ura, hamaka, lo egiteko zakuak, arropa... dena hiru edo lau egunetako eskalada baten zat. Ez dugu inolako laguntzarik eta, jakina, dena gainean eraman behar.

■ Beste biek zer egin behar dute?

Carlos De la Cruzek bidea egingo du nirekin, eta bestea uztallean datorrenean, biek egingo dute elkarrekin bidea era artifizialean. Guk ekainean egin nahi dugu, iritsi eta berehala. Han egongo garen lehendabiziko egunetan entrenamendu pixka bat egin nahi dugu inguruan, eta berehala ekin, eguzki ordu asko daudelako.

■ Iaz iraila aukeratu zenuten igozteko, eta aurten ekaina. Zergatik?

No alean iraillean beti hotza —1 da 15-18 gradu, goizean hotz eta arratsaldean fresko—

izaten da hango giroa. Ekaina seguruagoa da, uda hasten delako, eguzki ordu gehiago dagoelako eta orduantxe hasten direlako beroak, eta, gainera, jende gutxiago dagoelako, askoz jende gutxiago. Iraillean, gu hasi ginenean, atzetik lau talde zeuden eta aurretik beste bost. Horrela ezin da, ardurata zaudelako atzekoengatik eta aurrekoek oztopo egiten dizutelako. Orain ekainean ez dago inor ere.

■ Iruditzen zaizu iazkoa baino zailagoa izango dela, batez ere laguntza gutxiago izateagatik?

Teknikoki ez da zailagoa. Harkaitza hor dago, ez da aldatu. Beste arazo bat da ni fisikoki hobeto edo okerrago nagoen. Laguntza? egun bakar batean egin beharrean hiru egunetan egingo dugu, eta kitto. Lasaiago hartu eta aurrera, egunero 12 zati.

■ Iaz zerk egin zuen huts? Beroa izan zen arrazoa? Azkar joan beharra ere bai?

Beroak galarazten dizu azkar joatea. Bost ordutan 12 zati egin behar baldin badituzu... Ez duzu inor aseguratzeke, zaila da. Lehendabiziko zatietan badira oso seguruak ez diren zati asko, eta beroarekin oso arriskutsu egiten da. Hotzarekin askoz seguruagoa da eskalatzeara.

■ Iazko esperientziatik zer ondorio atera zenituen?

Balio izango dit 'The Nose'-ren arroka mota ezagutzeko. Kapitain harkaitza oso zabala da, kilometro oso bat duelako alde batetik bestera, eta, beraz, arroka oso desberdina da. Iazko esperientziarekin badakit zer seguru mota sartu behar ditudan, no-



Carlos Garcia, Yosemite eskalaten.

la ibili behar dudana.

■ Entrenamendu bereziak egiten ari zara?

Iruñean dugun arazoa da ezin dela inon entrenatu. Badugu Gotorlekua eta Zirauki gertu, baina ez dugu instalaziorik giharra lantzeko. Orain konbinatzen ari naiz eskalada gimnasio batean egiten dudana lanarekin, eta egiten ari naiz entrenamendu bat indarra irabazteko. Etxaurira ere joan naiz, baina ez arrailtan eskalatzeko. Hara joaten garenean landu egin beharko da arraila. Asmoa da Salathe bidea egitea, entrenamendu ona egiteko, gero egun batzuetako atsedena, eta gero sartu 'The Nose'-n.

■ Sasoiari zaude?

Handik etorri ondoren egon nintzen denbora luze eskalatu gabe, sei hilabete, ez nuelako gogo

handirik. Eta 12 urtetan ez naiz inoiz egon hainbeste denbora eskalatu gabe. Baina aseta etorri nintzen, azken finean zazpi hilabete egon naizelako kontu horrekin: bi prestatzen, hiru bidaian, eta beste bi proiektioak eta material guztia muntatzen. Gero uzteko gogo nuen. Hainbeste denbora ezer egin gabe egon ondoren, entrenamendu gogorra egiten baduzu, azkenean azaldu egiten da sasoi fisikoa, baina ahaztu egiten zaizu eskalatzeara.

■ Noizko rokodromo bat Iruñean?

Oso zaila da eskalatzaile guztiak antolatzea elkarrekin, baina eskaera handia dago, ez da dudarik. Jende gazte asko dago, eta bat bakarrik, seguruenik, txiki geldituko litzateke. Arazoa beti politikoa da, arazo guztiak horrelakoak

s o s l a i a

Hamaika urte eskalaten eman ditu, dituen 29etatik, Carlos Garcia. Denbora horretan malla handiko eskaladak egin ditu, eta bideak zabaldu Huescan (Riglosen), Etxaurin eta Escalaten.

1987an Munduko Txapelketan laugarren gelditu zen, eta geroztik txapelketa gehienetan parte hartu du.

Egun monotorea da Garcia Zuastiko Jaurerrian eta Nafarroako Federazioan ere. Aldizkari askotako kolaboratzailea da —'Desnivel', 'Extrem', 'Gure Mendiak'— eta Espainiako Telebistan eta Euskal Telebistan ere hainbat saio grabatu ditu, kolaboratzaile gisa. 1988an Nafarroako Gobernuaren aipamen berezia jaso zuen, egintako lanarengatik.

Iaz Yosemiteko 'The Nose' bideari ekin zion, orain arte inoiz lortu ez duena egin asmoz: bide osoa era askean —fjazioak erabili gabe— bistan —aurretik bidea ezagutu gabe— eta bi egunetan. Beroak galarazi zion, eta aurten berriz salatu nahi du.

direlako. Azken hiruzpalau urtetan nik eraman dut gai hori federazioan, baina bazter utzi dut, ez dut denbora gehiago galdu nahi, azkenean denbora galtzea delako. Orain uda heldu da, eta jendea badoa eskalatzera beste toki batzuetara. Neguan berriro heldu beharko zaio.

■ Zu zara Nafarroako eskalatzaile profesional bakarra. Presiorik sortzen dizu?

Ni ez naiz profeta neure herrian, hori garbi dago, baina ez dut inolako arazorik horrekin. Baina nik ez dut dirurik ateratzen eskaladatik: dirua irabazten dut eskaladaren inguruko gauza batzuekin, baina hori desberdina da. Profesionala da eskaladarekin dirua irabazten duena, eta ez da nire kasua. Nik dirua galdu egiten dut eskalatzeko.

P A N E
LUCRÁNDO

ZALDI EROA

